

HITZALDIAK

“*Ipuscuatik Gipuzkoara*” jardunaldiak
“Miguel de Aramburu” Gipuzkoako historiagileen
elkartearekin batera antolatutako zikloa

19:00. Sarrera dohainik lekuak bete arte.
+ on line

• **Urtarrilak 28**
Gipuzkoarren jatorriaren inguruko mitoak. Amaia Rojo. | Eus |

• **Urtarrilak 29**
Gipuzkoako erakundeen bilakaera XIV- XVI.
mendeetan: elkargoa eta gatazkak. Imanol Vitores. | Eus |

• **Urtarrilak 30**
La donación de 1025 en su contexto. Gipuzkoa
entre los siglos X-XIII. Iosu Etxezarraga. | Cas |

• **Urtarrilak 31**
En el corazon de un Imperio. La agencia y
embajadores de Gipuzkoa (1618 - 1775). Alberto Angulo. | Cas |

• **Otsailak 4**
La universidad Sancti Spiritus de Oñati, un regalo
para Gipuzkoa. José Antonio Azpiazu. | Cas |

• **Martxoak 4**
Un escudo para Gipuzkoa. Rosa Ayerbe Iribar.
| Cas |

• **Apirilak 1**
Gipuzkoako paisaiaren eraldaketa. Alvaro Aragón
Ruano+Jakoba Errekondo. | Eus |

HILEKO OBRA

Apirilak 6. 12:00 | Cas |
Historia de una provincia contada por una ballesta
(1025-2025), Carlos Rilova.
Sarrera librea lekuak bete arte.
Ant.: AAMST

FAMILIA JARDUERAK

Otsailak 1
Ipuin kontaketa
Duela 1000 urte Ipuscu... Lupe Lekuona
17:00. Sarrera librea lekuak bete arte +5

Otsailak 8, 15, 22
Arkeologia tailerrak
Erdi Aroko Gipuzkoa ezagutzen. Manu Ceberio,
Aranzadi Zientzia Elkartea.
17:00 | Eus | 5 €/familia (4,5 € bazkideak) / (+5)

BISITA GIDATUAK
Astearteetan: 10:30 | Cas | – 18:00 | Eus |
Larunbatetan: 10:30 | Eus | – 18:00 | Cas |

*Bisita doakoa da (beharrezkoa da web bidez lekua
erreserbatzea), baina museoko sarrera erosi behar da.*

Bisita gidatua Iosu Etxezarraga komisarioaren
eskutik.
Urtarrilak 23 + Otsailak 6. 17:00 (cas) + 18:00
(eus).

Bisita doakoa da, erreserbak web bidez.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

Bisita gidatuak, bisita-tailerrak, bisita autonomoak.
Lehen Hezkuntzako 3-6 mailentzako eskaintza.
DBHko 1-2 mailentzako eskaintza.
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Eskola
programaren laguntzarekin.



Gerriko hebilla (San Prudentzio, Getaria), XII. mendea. Eusko Jaurlaritzaz

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa

Ordutegia:

Urtarriletik martxora: 10:00-19:00
Apirila eta maiatzra: 10:00–20:00

Astelehenetan itxita (apirilaren 21a salbu)

Erakusketa honetan elkarlanean aritu dira San Telmo Museoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko
Kultura, Lankidetzaz, Gazteria eta Kiroletako Departamentuak



IPUSCUA

1000 urte

Ipuscuatik Gipuzkoara - 1025-2025

SAN TELMO MUSEOA


Erakusketa · 2025/01/18 – 2025/05/11



Erakusketak azken mila urteetan barrena egindako bidaia proposatzen du,
Gipuzkoa entitate geografiko lausoa izatetik nortasun juridiko propioa zuen
elkarte egonkor bat izatera nola igaro zen jakiteko, gaur egun arte iraun duten
erakundeekin. Iosu Etxezarraga da bere komisarioa.

Dokumenturik ez egoteak eragotzi egin du gure lurraldearen historia urrunena
ezagutzea. Sarritan, informazio-gabezia hori zela eta, lurralde primitibo gisa
azaltzen zen Gipuzkoa, kanpoko botereek antolatua. Hala ere, arkeologiari esker,
gaur egun badakigu tokiko eragileek eginkizun garrantzitsua izan zutela bere
bilakaera historikoan. Horregatik, 1025ean gure lurraldearen izena lehen aldiz
aipatu zeneko milagarren urteurrena baliatu nahi dugu panorama historiko
eguneratua aurkezteko.

Hainbat material eta ondare-baliabide erabiliz, lurraldearen eta bertako erakun-
deen bilakaera historikoaren ildo nagusiak azalduko ditugu erakusketa honetan.



San Juan de la Peñako kartularioa, XI-XV mendeak, Zaragozako unibertsitateko liburutegia.



Dohaintzaren unearen ilustrazioa. Martintxo Altzueta

Gipuzkoa duela mila urte

1025ean, García Acenáriz (Ipuscuako jauna) eta Gayla senar-emazteek San Juan de la Peñari dohaintzan eman zioten Olazabalgo San Salvador eliza (Altzon), baita Tolosaldeko eta Aia-Zarauzko beste jabetza batzuk ere. Ekintza hura dokumentu batean erregistratu zen, eta dokumentu harekin hasiko da, hain zuzen ere, erakusketa.

Dohaintza egin zen une hura, eta Gipuzkoako lurraldea sartzen ari zen trantsizio-aldia ulertzeko, hainbat material aurkeztuko dira, une hartako tokiko antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoari buruzko informazioa ematen diguten testu, bideo eta mapekin batera: apaingarri pertsonalak, armak, elementu ikonografikoak, fauna-hondakinak, tresnak, etab.



Balea zigilua, XIII. mendea (erreprodukzioa). Gordailua, Gipuzkoako Foru Aldundia



Lantza punta (Aitzorrotz, Eskoriatza), XII. mendea. Eusko Jaurlaritza



Kaskoa (xehetasuna), XVI. mendea. San Telmo Museoa

Gipuzkoa mapan

Bere esanahia ezezaguna bada ere, aditu asko saiatu ziren Gipuzkoaren izenerako etimologiak proposatzen. Oro har, badirudi lurralde generiko bat aipatzen dela, gaur egun okupatzen duena baino txikiagoa, gutxi zehaztutako mugak zituen eta, agian, XI. mendeko botere politiko nagusietatik urrun samar zegoena.

Horrek ez du esan nahi inguruko mundutik deskonektatua zegoenik, eta, hain zuzen ere, lurraldearen potentzialitateei esker merkataritza suspertzeak onura handia ekarri zion. Horrek hiribilduen sorrera eragin zuen, lege berriak zituzten hiri txikiak. Haietan eliteak ezarri ziren, gerran ziharduten jauntxo aristokratikoekin lehian.

Erdi Aroaren amaieran, egungo geografia hartzen joan zen Gipuzkoako lurraldea, hiribildu haiek beren artean elkartu baitziren eta Ermandadea eratu baitzuten. Hala, erakunde berri hari hainbat toki-erakunde gehitu zitzaizkion, eta handitu egin zen *Ipuzcua* zaharraren lurraldea. Hala, 1500 eta 1845 artean Oñati bakarrik geratu zen Gipuzkoako plano hartatik kanpo. Erakusketan material kartografiko historikoak ageri dira lurraldeak izan zuen bilakaera hura erakusteko.



Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiaren San Carlos ontziaren maketa. Euskal Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia

Jaurerritik Foru Aldundira

Gipuzkoako hiribilduen Ermandade hura Gaztelako erregeak 1397an babestu zuen, Getarian egindako Batzar Nagusian. Pixkanaka-pixkanaka, Gipuzkoa konplizitate-harremana ezartzen joan zen Gaztelako Koroarekin eta, ondoren, Espainiako Inperioarekin. Hori dela eta, XI. mendeko jaurerri zaharrak ez zuen jarraipenik izan, eta aristokrazia gerrazaleak ez zuen lortu botere politikoa eskuratzea.

Hala, Gipuzkoako oligarkiak erakunde batzuk sortu zituen erregearen laguntzarekin, Batzar Nagusiak eta Aldundia, jarduteko tarte handia eta legegintzarako ahalmen handia zutenak, eta parte-hartze sozial ez-estamentuzkoa, lurraldekoa baizik. Gipuzkoaren jatorriari eta gipuzkoarren "odol-garbitasunari" buruzko mito batzuetan oinarritu zen eredu hura, eta gipuzkoarrek berdintasunaren, subiranotasunaren eta erregearekiko fideltasunaren ideien inguruan sortu zituzten beren erakundeak.



Jerónimo de Larrea, Gipuzkoaren Historia, erliebeak, XVI. mendea. Gipuzkoako Agintegi Orokorra, Gipuzkoako Foru Aldundia

Izaera mitologikoko kontzeptu horiek sinbolikoki islatu ziren Probintziako antzinako armarrian, eta Jeronimo de Larreak XVI. mendearen amaieran egindako lau erliebe bikainetan izan zuten azalpena. Ibilbidearen amaieran daude ikusgai, dagokien azalpenarekin.

Gainera, haiekin batera dauden pieza artistiko, arkeologiko eta dokumentalek erakusten dute Gipuzkoako eliteek etekina atera zutela estatuarekiko harreman pribilegiatu hartatik. Sintonia hark enpresa ekonomikoen sorrera ekarri zuen, eta haietan gipuzkoar gehienek hartu zuten parte, zuzenean edo zeharka: armen ekoizpenean, ontzigintzan edo kakaoaren inportazioan. Hala, Gipuzkoako oligarkiako pertsona ospetsu batzuk ere iritsi ziren Inperioaren boterearen goi-mailetara.



Gerardo Mercator. Legionis, Bisciae-et Guipuscae. Typus. XVI. mendea. San Telmo Museoa

Aldaketa eta gatazka

XIX. mendean erregimen liberalak ezartzeak eta estatuaren zentralismoak tentsio handiak sortu zituzten probintziaren eta gobernu zentralaren artean, baina baita Gipuzkoako gizartearen barruan ere. Karlistaldiak euskal gizarteko sektore handi batzuek erreforma liberalen aurrean zuten erresistentziaren isla izan baziren ere, erreforma haiek azkenean Gipuzkoa Estatuko esparru berrian integratzea lortu zuten.

Horren ondorioz, foruak indargabetu egin ziren, baina, denborarekin, antzinako erakundeek lekua izan zuten sistema konstituzionalean. Bestalde, Gipuzkoak hiriburu egonkorra izan zuen azkenean, Tolosaren eta Donostiaren artean lehentasuna lortzeko izan zen gatazkaren ondoren. Gainera, Oñati gehitzeak egungo silueta eman zion lurraldeari. XX. mendearen erdialdeko Gipuzkoa irudikatzen duen maketa topografiko erraldoi batean ikusiko dugu hori.